

## Mutiloarako bidearen lehen harria jarri dute



Joan den urtarrilaren 30ean, astelehena, Zerain eta Mutiloa elkartuko dituen bidearen lehenengo harria jarri zuten Mutiloan. Zeraingo alkateak, Iñaki Berasategik, Mutiloakoak, Iñaki Ugaldek eta Diputazioko Aldun Nagusiak, Jose Juan Gonzalez de Txabarrik jarri zuten lehenengo harria. Hiru horiez gain, ekitaldian izan ziren baita ere, bi herrietako Udaletako ordezkariak eta Foru aldundiko beste kargudun batzuk. Foru Aldundikoei harrera egin ondoren, bi alkateek eta Aldun Nagusiak lehen harria jarri zuten. Segidan, Mutiloako

udaletxean Diputazioko teknikoei bidearen nondik norakoak azaldu zituzten. Jarraian, bi herrietako alkateek eta Gonzalez de Txabarrik hartu zuten hitza. Iñaki Ugaldek nahiz Kozmendik eskerrak eman zizkioten Aldun Nagusiari bi herrientzat onurak ekarriko dituen errepide honetan apustu egiteagatik.

Urtarrilaren 30ean izan zen harri jartze sinboliko hori eta orduz geroztik, lanean ari da Murias enpresa errepide egiten. Mutiloatik hasi dira eskabedorak lanean eta ondo bidean, irail alderako amaituta egongo da.

# Zerain eta Mutiloa elkartuko dituen errepidea martxan da

2004ko abenduaren 10ean Zeraingo udaletxean bidearen proiektua aurkeztu zenetik orain arte denbora dezente pasa da. Bat dela eta bestea dela, Zerain eta Mutiloaren arteko bidearen proiektua atzeratzen joan da. Baina azkenean, urtarrilaren 30ean lehen harria jarri ondoren, hasi dira errepide berria egiteko obrak. Eskabadorak Mutiloatik gorantz hasi dira lurrak mugitzen eta laster iritsiko dira Zeraingo lurretara ere.

2004ko abenduaren 9an agertu zen bide berriaren proiektuaren Foru Araua Gipuzkoako Foru Aldundian. Handik aurrera, proiektuak prozesu normala jarraitu du, baina hainbat oztopo tarteko, atzeratzen joan da. Izan ere, joan den urteko, 2005eko apirilean ziren hastekoak errepidea egiteko lanak, baina aurtengo urtarrilaren bukaera aldera arte ez dira hasi.

## Proiektuari alegazioak

Horrelako obretan ohikoa den moduan, errepide berriak lurzoru dezente behar du. Eta zaila izaten da denen gustuko trazatua markatzen. Gainera, lurjabe batzuei lur zati batzuk kendu beharrak zaildu egiten du oraindik gehiago proiektua. Horiek guztiak horrela, errepidearen proiektuan kaltetuak ziren lurjabeek nahiz lurjabe ez diren batzuek dozena bat alegazio inguru aurkeztu zituzten. Foru Aldundia, ohiko prozedurari jarraituz, alegazio horiek aztertzen joan zen eta proiektuan egin beharreko aldaketak egiten. Prozesu horretan, denbora dezente behar izan da eta horregatik atzeratu da hainbeste kamino berriaren obren hasiera.

Kontuak kontu, azkenean, Diputazioak legeei eta prozedurei jarraituz, proiektua aurrera atera du. Eta Zeraingo udaletxean 2004ko abenduan proiektua aurkeztu eta urte eta hilabete pasatxora, lehen harria jarri dute Aldun Nagusiak eta



Diputazioko ordezkariak, Txabarri, Ugalde eta Kozmendi aurkezpenean. E. MENDIZABAL

bi herrietako alkateek. Denen gustua egitea nekeza izaten den arren, bide berriak Zerain eta Mutiloaren arteko harremanak hobetu eta erraztu egingo ditu, obrak amaitzen dituztenean.

## Milioi bat euroko kostua

Errepide berria egitea milioi bat euro

pasatxo kostako zaio Foru Aldundiari. Murias enpresa ari da bidea egiten eta zortzi hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko. Beraz, inongo okerrik ezear, datoren irailerako amaituta egon behar-ko luke Mutiloa eta Zerain lotuko dituen 1,3 kilometroko errepideak.



## Kaminoa dela eta...

Joan den urtarrilaren 30ean Mutiloarekin elkartuko gaituen errepidearen lehen harria jarri genuen. Eta uste dut benetan une garrantzitsua dela Zeraintzat eta zeraindarrentzat. Aukera berriak emango dizkigun eta bi herrien arteko lankidetzan lagunduko digun bidearen aurrean gaude. Aldun Nagusiak esan zuen moduan, "bi herrien arteko kale nagusia" izan daiteke errepidea. Oportunitate berriak eskainiko dizkigun proiektu bizi baten aurrean gaude.

Orain errealitate egingo den errepidea ez da egungo Udalaren kapritxo bat. Aizpeako minatan ibili ziren alemanek ikusten omen zuten Mutiloa eta Zerain lotzeko beharra. 1979an markatu zuten lehenengo aldiz bide posible baten trazatua; eta ordutik hona 3 proiektu ezberdin erredaktatu dira bi herrien arteko kaminoarenak. Beraz, aspaldiko proiektu eta amets bat errealitate egitetik oso gertu gaude eta benetan pozteko motiboa da zeraindar guztiontzat.

Errepidearen kontrako iritziak ere egon dira. Eta neurri batean ulergarriak dira, lurjabe batzuei kalteak egiten baitizkie. Eta horiek behar dute euren errekonozimendua eta errespetua ere. Baina inongo kalterik izango ez duten batzuk ere errepidearen aurka egon dira. Eta horiei esan nahi diet guztien onurari begiratu behar zaiola eta aurrera begira jokatu behar dela. Eta neurri horretan, bide honek berezko harreman naturala duten bi herri lotuko ditu eta etorkizunerako aukera berriak eskainiko dizkie.

Zerain bezalako herri txiki batek aurrera egiteko, bizirik egon behar du eta hori egunerokotasunean ikusten da. Eta horretarako, historiatik eta erromantizismotik bakarrik ez dago bizitzerik. Ondo dago nortasuna gordetzea, baina museoko herria bihurtu gabe. Urbiako artzainak ere duela 50 urte bizi ziren bezala ikustea polita da argazkiak ateratzeko, baina gaur egun ezin zaie eskatu hala bizitzerik. Eta era berean, Zerainek aurrera egin nahi badu, beharrezkoa da aurrera begiratzea iraganari bizkarrik eman gabe. Eta horretarako aukera ezin hobea da kamino hau.

*Iñaki Berasategi, alkatea*



## Errepide berriaren ezaugarriak

Zerain eta Mutiloa lotuko dituen errepidea ez da oso luzea izango. Guztira 1343 metro izango ditu. Antxaputxutik abiatutko da, eta lehenagoko bidea aprobetxatuta, Irukate alderaino joango da. Zati horretan, lehenago bidea zabaldu eta hobetuko da. Irukatetik, Arakamane gainetik, Oiarbe aldera egingo du bideak. Oiarbe buruan, bihurtune batekin, Murgiaran aldera egingo du errepideak. Mutiloako baserri hori goitik pasako du eta aurrera jarraituko du bideak. Ondoren, U formako errebuelta handi batekin, Mutiloako frontoi aldeko errepidearekin bat egingo du.

Errepideak 2,25 metroko bi erreteko izango ditu eta alboetan 0,50 metro-

ko bi bazterbide edukiko ditu. Antxaputxun, rotunda edo biribilgune bat egongo da eta 40 metroko diametroa izango du kanpo aldean. Bertan 6 farola altu jarriko dituzte. Bestalde, errepideak aldapa dezentea izango du Mutiloa aldean, ia kilometro batean 77 metroko desnibela igotzen baitu. Horregatik, aldapa %8 ingurukoa izango da Irukate aldera arte.

Errepidearen zailtasunik handienak lurren indusketa eta betelanak dira. Lurraren topografia dela eta, lur mugimendu dezentea egin behar da. Horrez gain, saneamendu batzuk ere egin beharko dira. Eta etxeen inguruan, ura, gasa eta argindarra bezalako hiri zerbitzuen sare-zati berriak sartu beharko dira.

Liztormendi

# Tute eta mus txapelketak


**Iraitz, Arrondo, Arrabiola eta Antia.** X. DORRONSORO

**Arrieta, Luis, Joxe eta Arakama.** I. MUÑOA

Liztormendi elkarteko karta txapelketak jokatu dira azkeneko aletik hona. Ilbeltzaren 28an tuteko txapela jokatu zen eta hil honen 11n, berriz, musekoa.

Aipatzekoa da bi lehiaketetan izan den partehartze altua. Tuteko txapelketan 21 bikotek hartu zuten parte eta musekoan 23k. Beraz, partehartzeari dagokionez, azkeneko urteetan izan den jendetzarik handiena bildu zen. Horregatik, oso pozik gaude soziedadean. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei, herritarrei nahiz kan-

pokoei. Gainera, umore onean joan ziren partidak eta ez zen inolako lis-karrik egon. Eta datozen urteetan ere horrela jarraitu nahi dugu.

Tuteko txapelketan segurarrak nagusitu ziren; Julian Arrondok eta Pako Aristimuñok (Arrabiola) jantzi zuten txapela, bi gazteri finalean irabazi ostean. Iraitz Iparragirre zeraindarra eta Iñaki Antia segurarra izan ziren bigarren sailkatuak.

Museko txapelketan, zegamar askok parte hartu zuten eta finalean ere nabarmendu ziren. Azkenean, txapela Luis Aizpeolea zeraindarrak

eta Joxe Larrea zegamarrak (Mandio tabernakoa) jantzi zuten. Bigarren ere zegamarrak izan ziren, Luis Arrieta eta Aitor Arakama. Finala emozio handikoa izan zen eta azkenean Luisek eta Joxek 4 eta 3 irabazi zuten.

Liztormendi elkartean karta jokoa izan da nagusi azkenaldian. Eta gai-nontzean ez dago aparteko berririk. Berriz ere eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei eta datorren urtean ere gure artean izango ditugula espero dugu. Hauxe da dena oraingoz, datorren alean soziedadeko berri gehiago.

Bolatea

# Endika Alustiza XIII. memoriala

Datorren otsailaren 26an, igandea, jokatu da Zeraingo bolatokian Endika Alustiza zenaren oroimeneko XIII. bola-txapelketa. Lehenengo laurentzat diru sariak eta trofeoak izango dira; eta hurrengo laurentzat trofeoak. Goizeko 10etatik 11:30etara izena emanda eta arratsaldeko 4:30etatik 5:30etara izena emanda egingo dira tiraldiak. Antolatzaileak Zeraingo udala, kultur etxea eta Liztormendi elkartea dira. Babesleak berriz, Ostatu, Mandio denda, Mandio taberna, Otatza sagardotegia, Segurako bolariak eta Joxe Telleria aseguruak. Beraz, igandean bolari onenak Zerainen izango dira.


**Zeraingo taldeak irabazi du Gipuzkoako herrikako bola txapelketa. Zeraingo kideak dira: Patxi, Retegi, Luis, Gerra, Antonio eta Aranburu.** ION MUÑOA.

# Eski irteera Luz Ardidenera

**D**atorren martxoaren 3, 4 eta 5ean eski irteera egingo da. Aurtengoan, iaz bezala, Luz Ardidenera joango dira eskiatzaileak. Ostiral iluntzean irtengo dira eta zapatua eta igande eguerdira artea eskiatzen egingo dituzte. Lo egiteko lau laguneko apartamendu txikiak izango dituzte. Iaz ez bezala, aurten jende nahiko gutxi apuntatu da eskiatzera joateko. Baina joaten direnek, seguru oso ongi pasako dutela.

## Santa Ageda bezpera

Urteroko moduan, aurten ere ohitura eta usadio zaharrari jarraituz, herri-talde bat etxez etxe ibili ginen kantuan eta eskean. Eta urtero bezala, harrera ezin hobea egin ziguten etxe guztietan. Guztira 1558,67 euro



Harrera ezin hobea egin ziguten. E. MENDI.



Talde polita ibili ginen kantuan. E. MENDI.

eman genituen zeraindarrok eta diru hori, urtero ohi den moduan, garapen bidean dauden herrialde batera bidaliko da. Aurtengoan Afrikako Gineako Akonibe herrixkara bidaliko

da euren beharretan laguntzeko. Beraz eskerrik asko guztioi. Aurten, lagun talde handia bildu ginen eta eskea amaitu ostean, umore ederrean egin genuen Oiarren afaria.

## Herri eskola

# Eskolako Agenda 21 sinatu dute

**I**ñaki Berasategi Zeraingo alkateak eta Kontxi Errasti Zeraingo Herri Eskolako zuzendariak Eskolako Agenda 21 sinatu zuten joan den urtarrilaren 25ean. Udaletxean egin zen ekitaldian Herri eskolako bi irakasleak, lau haur helduenak eta Guraso elkarteak ordezkarria bat izan ziren, Iñaki Berasategi alkatearekin eta proiektuaren teknikariarekin batera.

Eskolako Agenda 21 deritzon hitzarmen honekin, Udalak nahiz Herri Eskolak konpromiso irmo bat hartu dute. Eskolak bere aldetik, konpromisoa hartu du ingurugiroarekiko eta herriarekiko errespetua lantzeko haurrekin, eta haurrengan garapen eramangarriko kontzientzia sortzeko. Horretarako, Zerain maitatzen eta errespetatzen ikastea dute helburu, herria agenda 21aren testuinguruan garatzen laguntzeko. Bestalde, Udalak bere aldetik, hitz eman du, herriko gaztetxoenen iradokizunak eta planteamenduak kontuan hartuko dituela herriaren alde lanean



Eskolako Agenda 21 udaletxean sinatu zuten. A. JUNKERA.

jarraitzeko. Azken batean, Agenda 21ak markatzen duen garapen eramangarriaren markoan, Zerain ume-tatik maitatzen eta Zerainen alde txikitatik lana egiten ikasteko aurrerapauso bat da hitzarmen hau.

## Eskolako inauteri festa

Datorren otsailaren 27an, astelehena, inauteriak ospatuko dituzte eskolako haurrek. Arratsaldeko 4retan antzer-

ki mundiala eskainiko dute eskolako haurrek Maisunen. Ondoren, bertaraten diren haurrek asto karroan ibili ahalko dira Bartoloren borondate ona aprobetxatuta. Azkenik, guztiek, guraso elkarteak eskainitako merienda eder batez gozatu ahalko dute. Zeraingo herri eskolatik zeraindar guztiak gonbidatzen dituzte Zeraingo inauterien festara. Eta ahal duzenok mozarrotuta etorri!

## Udala

### Arau subsidiarioak

Udal batzarrak 2006ko urtarrilaren 4an erabaki zuen Zeraingo Udal Planeamenduko Arau Subsidiario aurrerakina jendaurrean jartzea, iradokizunak eta hala balegokio planeamendurako beste aukera batzuk aurkeztu ahal izateko. Jendaurreko epe hori hogeita hamar egunekoa da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera. Eta esandako hori guztia, Hirigintza Planeamenduko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Halaber, epe berdinean jendaurrean jartzen da ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006ko urtarrilaren 27an publikatu zen eta epea 30 egunekoa denez, martxoaren 3 arte egongo da jendaurrean ikusgai aurrerakina.

#### Herri lurretan larretzeko eskaerak

Herriko ganaduzaleei jakinarazten zaie, 2006. urtean Herri Lurretako larreetan beraien ganadua erabili nahi badute, Udaletxean izena eman beharko dutela martxoaren 23a baino lehen.

Izena ematerakoan...

Lehenengo aldia bada, ondoko dokumentazioa ekarri beharko da:

\* Nekazaritza Ustiakuntzako txartelaren kopia

\* NAN kopia

\* Abereen identifikazio agiria

\* Larreetara igoko den ganadu kopurua

Lehendik ganadua igotzen dutenek:

\*Larreetara igoko duten ganadu kopurua.

#### Makinari zerbitzua

Goimenek herriz-herriz eskaintzen

duen makinari zerbitzu bat dago: desbrotzadora, pala-retroa... Makinari zerbitzu hau behar izanez gero Zeraini dagokion egunetan eskatu dezakete partikularrek ere. Kostua Udalarari fakturatzen zaiona izango da.

Informazio gehiago nahi duenak Udaletxera jo dezake edo bestela, zuzenean Tomax makinistari deitu. 2006ko hasieran, Zeraini dagozkion egunak ondoko hauek dira: Martxoaren 6,7 eta 8a: 3egun guztira.



#### Silo-bolen plastiko bilketa

Goimen elkarrekin silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa zerbitzua berriro hasten dela jakinarazten du. Bilketa hilean behin egingo da (hileko 3. asteartean) eta jadanik hilabete bakoitzeko egunak izendatuta daude. Hauek dira aurtengo egunak:

urtarrilak 17

otsailak 21

martxoak 21

apirilak 18

maiatzak 16

ekainak 20

Bilketa egin ahal izateko, Udalak, aurrez itxitura bat egingo du bilketa puntuetan eta plastikoa bezperan, astelehenean, atera beharko da.

Zeraingo herrian bilketa puntuak ondorengoak dira:

\*Zabalegiko kanpa, Lumagorri oilasko hiltegi ondoan.

\*Barbari auzoa: Arrizabala baserri ondoan.

\*Barbari auzoa: Basozabal bide barreanean.

**Oharra:** Birziklatzeko arazoak ematen dituztenez, sokak ez ateratzea eskatzen da.

#### Udalsarea 21

Dagoeneko EAeko 200 udalerrik baino gehiagok egin dute iraunkortasunaren aldeko apustua eta Tokiko Agenda 21 prozesuan ari dira lanean. Esparru honetan duela hiru urte sortu zen Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea izeneko foroa, erakundearen arteko koordinazioa eta lan-kidetza lanak egiteko, betiere Tokiko Agenda 21 prozesuaren aurreratuen dauden udalerrietako ekintza-planak aplikatzen laguntzeko.

Zeraingo Udalak arrakastaz gainditu du udalerrietako Tokiko Agenda 21 diseinatze fasea, eta, beste udalerrietan eta erakundeekin batera, Tokiko iraunkortasuna lortzeko bidean aurrera egiteko konpromisoa berretsi du.

2006ko urtarrilaren 25ean, Gasteizen, Lehendakartzaren egoitzan egin zen ekitaldi publikoan Udalsare 21ek bazkide berriei ongietorria egin zien eta sarearen kide bezala aitortzen dituen diploma eman. Beste herri batzuen artean Zeraingo Udala.

#### Sasieta

Altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko traste zaharren bilketa hilauren laugarren asteazkenetan egingo da. 2006ko lehenengo hiruhilabeteko egutegia honako hau da.:

\*otsailak 22

\*martxoak 22

Zerbitzu hau jasotzeko, alde zuzenean aurretik 943161555 telefonora deitu behar da, trasteak zein puntutan utzi behar diren adierazteko.

## Kristau elkarteak

Urtero ohi dugun moduan, aurten ere, San Blas egunean, otsailak 3, Zeraingo ermita ederrean meza ospatu genuen. Jende dezente hurbildu zen. Jana eta kandelak bedeinkatu genituen ohiturari jarraituz.

Ondoren, baita ere ohitura onei jarraituz, eta Kultur Elkartearen borondatez, merienda ederra egin genuen Liztormendi elkartearen. Lagun giro ederrean ospatu genuen San Blas eguna.

## KZ gunea

**Martxoan tutorea bi egunetan egongo da eta bi mintegi eskainiko ditu: martxoaren 9an "Aurkitu lan bat internet bitartez" eta martxoaren 23an, "Irudien tratamendu digitala". Orduetgia: tutorea, 16:00-20:00; mintegiak: 17:00-19:00.**

## Abaroa

Donostiarrok, batez ere Aiete ingurukook, bagenuen Hernanira bidean leku bat aski ezaguna: Miramon-txara. Anoetaren, Ospital berrien, Oriamendiren eta Goiko Galtzadaren artean zegoen Miramon-txara hori. Ehiztarien gustukoa zen oso: baserri gutxi, oihan zabal handirik apenas, eta sastraka ugari. Leku aproposa, birigarrotan eta bestelako txori-ehizan ibiltzeko. Galdu da Miramon-txara. Ekologia aldetik galdu da, ez bestela: lekua han dago noski, betiko parajea. Erabat urbanizaturik dago ordea, orain berrogei urtera arte sastraka-leku izandakoa. Poliklinika eta ETB, Miramongo parke teknologiko eta Euskadiko Orkestra Sinfoniko, bide zabalez eta trafikiko ugariz hornituak guztiak: horiek eta horien antzekoak daude han, orain, lehengo faunaren eta zuhaitz-landare gehienen ordeza.

Gatozen gure kontuetara. Zer da, edo zer zen, *Miramontxara* hori? *Miramontxara*, hasteko, leku-izena izana dugu jatorriz. Gero apellido (Agirremiramontxara) bihurturiko leku-izena. Izen hori nondik datorren ez gara orain esaten hasiko. Donostian eta Beterri gehienez (batez ere Kostaldean, baina ez han bakarrik) kaskoinek eta Baionako elizak izandako lekuaz eta garrantziaz hitz egin beharko genuke horretarako. *Txara* nondik datorren, aldiz, ezagunago dugu: gaztelaniazko *Jara*-rekin loturik dago gure *txara*. *Jara*-rekin eta bere eratorriekin: *jaral*, *jarilla* eta *abar*. Iturria, forma aldetik, arabierazko *šarâ* hitzean du antza. Esanahia ere handik datorkio: "matorral, mata, bosque, bosquecillo" (Joan Corominas). Familia berekoa da *Jaro* ere: "mancha de monte bajo". Euskalki gehienetan ageri da hitz hori, era batera edo bestera: *txara*, *txaga*, *jara*, *xara*, *zara*, bai eta *txaradi*, *txaraka*, *xaradi*, *txaadi*.

Eta iritsi gara, azkenik, iritsi nahi genuen lekura: **abaro** hitzera. Esanahi berekoak ote dira, goiko *txara* hori (batez ere *txaradi*, *txaraka* modukoak) eta Goierriko abaro?. Ikus dezagun *abaro*-ren esanahia,

Mitxelenaren OEH-n: "monte bajo, sombra, refugio". Lotura modukoa badute hortaz, batak eta besteak, "monte bajo" horren aldetik. Baina ez dira gauza bera. Zuhaitzez (edo zuhaixkez) ari da bata (*txara*), soil-soilik, eta halako zuhaitz-zuhaixkek osatzen duten babes-itzalaz ari da bestea (abaroa) nagusiki. Ikus zer dioen Sarasolak, bere *Euskal Hiztegia*n: "zuhaixka asko hazten den eremua", batetik, eta "zuhaizpeko babesgunea, ganaduak eguzkitik gerizatzeko erabiltzen duena", bestetik. Zaldibiko Iztuetak esandakora gatzoz beraz, abaroa aipatzean: "Refugio, arbolea espesa u otro lugar sombrío que sirve de refugio al ganado". Astarloak besterik dio, hale-re, *abaroaz* ari delarik: "monte cuya leña no es de árboles bravos, sino de un ramaje que sale de troncos pequeños o cepas". *Txararen* antzekoa, itxuraz.

*Abaro* hitza ez da Goierrikoa bakarrik: Bizkaian eta Gipuzkoa gehienez, baita Nafarroaldean ere, aski ezaguna eta maiz erabilitakoa dugu. Artzainen eta bestelako ganaduzaleen artean erabili izan da, batez ere. Haien artean edota, nahiago bada, haien ugari ziren herritarren artean. *Abaro egin* eta *abaroan egon*, horrela, ohiko artzain-kulturan ondo erroturiko hitzarteak dira: ikus, batez ere, Kandido izagirreraren bilketa-lan ederra. Baita Juan de Arin Dorransorok Ataun aldean jasotako *abaro-leku* modukoaren testigantza sendoa ere.

Artzantzak beheara egin duen neurrian, hitza ere bakanduz joan da. Herri xehearen ezpainetan bakanduz eta, aldi berean, euskaltzale burujantzien artean indartuz eta zabalduz. Hasierako esanahia eguneratuz, gero eta maizago erabili izan dute azken hauek *abaro* hitza, XX. mendearen lehen erdian batez ere. Ikus, adibidez, Orixeren hau: "Ori sendatzeko ardiek antzo dut e(g)iten abaroa". Baita Zaitegiren hau ere: "Gaizki eratutako errien abaro ta iges-leku". Orobat, eta azkenik, I. Sarasolak kanta-letra berritutik emandako (agur, zeruko eguzki, pozkidaz betea,) agur bekatarien lehor (e)ta *abaroa* (estalpea ordeza)".

Mikel Zalbide

## Elurretan jolasean

Urtarrilaren 28an, Zerain zuri-zuri ikusi ahal izan genuen. Herriko haur eta gurasoak Goikoetxe inguruan ibili ginen trineoekin aldapa gora eta behera. Oso ondo pasatu genuen bertan, nahiz eta kolpe bat edo beste ere hartu genuen. Arratsaldean gaztetxoak Aldasoroko aldan ibili ziren.



Goikoetxe aldean ibili ginen. A.R. LARRINA.

Aste Santua baino lehen ondorengo ekintza hauek egingo ditugu. Parte hartu nahi dutenak jarri gurekin harremanetan:

\***Otsailaren 26an**, Donostiako Izotz-Jauregira joango gara patinatzerara eta ondoren Zubietako sagardotegi batean bazkalduko dugu. Parte hartu nahi duzuenok jarri inolako beldurrik gabe, harremanetan Andoitz eta Rebekarekin.

\***Martxoaren 14an** Itsasondo, Gabiri eta Olaberriako guraso-elkarteetako ordezkariekin bilera egingo dugu Zerainen. Bilera Goierriko eskola txikien festa antolatzeke izango da. Aurtengo festa Zerainen izango da maiatzean.

\***Apirilaren 2rako**, Barreterapia ikastaroa antolatu dugu gurasoentzat. Barre egiteak dituen mesedeei buruzko ezagutza teoriko eta praktikoak ezagutzeko asmoarekin goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00ak arte izango da Maixunen. Barre egitea behintzat espero dugu! Ikastaroa bukatu eta gero, elkarrekin bazkaltzera joateko asmoa dugu. Parte hartzeke interesa duzuenok jarri harremanetan Arantxarekin.